

Literaturaren Egunaren inguruko ekitaldiak hasi ziren atzo Legazpin

Aste honetan kultur etxeko erakusketara bisita gidatuak izango dira haurrentzat Apirilaren erdialdean Alberto Ladron, Imanol Azkue eta Anjel Lertxundi idazleekin solasaldiak izango dira

Asier Zaldua. Legazpi.

Udaleko Kultura sailak eta Legazpiko liburutegiak, apirilaren 2an Haur eta Gazte Literaturaren nazioarteko eguna dela eta, egitarau oparoa antolatu dute. Programa atzo hasi zen eta apirilaren 19an bukatuko da. Atzo erakusketa ireki zen kultur etxean eta datozen egunetan bisita gidatuak, antzerki eta ipuin kontaketa saioak eta idazleekin solasaldiak izango dira. Aipatu bezala, atzo Animaliek hizketa zekiten garaian erakusketa ireki zen. Haurren artean literatura zaletasuna zabaltzeko lan egiten duen Galtzagorri elkarteak prestatu du eta hilaren 30a bitartean izango da Legazpin. Gaurtik aurrera, Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako ikasle guztiak pasako dira bertatik. Jolas literario batean murgilduko dira, hainbat ekintza burutuz eta irakurketa nahiz idazketa proposamen desberdinak eskainiz. Alegien aukeran, haurrek animaliekiko duten identifikazioa landu nahi da. Helburuak, hizkuntzaz gozatzea, literatur zaletasuna bultzatzea, literatura era ludikoan lantzea eta txikiek beraien sentimenduak esperimintatzea da. Ostiralean, 20.30ean, Kandido Uranga aktoreak Henry Bengoa inventarium antzezlan eskainiko du Latxartegi aretoan. Hilaren 30ean, berriz, bost urtetik gorako haurrentzat ipuin kontaketa saioa izango da liburutegian. Kontu Kontari taldearen saioa 18.00etan hasiko da. Asteburu berean, igandean, Markeliñe taldeak Txitxarra eta inurria antzezlan eskainiko du Latxartegi aretoan. Ekitaldia 17.00etan hasiko da.

Apirilaren erdialdean, berriz, idazleekin solasaldiak izango dira. Hasteko, 16an, Alberto Ladron izango da kultur etxean. Saioa irekia izango da eta 18.00etan hasiko da. 17an Imanol Azkuek DBHko ikasleekin hitz egingo du eta 19an Alberto Ladronnek Batxilergokoekin. Bukatzeko, egun berean, Anjel Lertxundi izango da kultur etxean. Saioa irekia izango da, gazteleraz, eta 18.00etan hasiko da. Aipatu, gainera, apirilean herriko ikastetxeetako haurrak liburutegia ezagutzera eramango dituztela.

Dena den, liburutegia oso ezaguna da jada legazpiarren artean. Iaz 22.000 bisitari baino gehiago izan zituen, 2005ean baino 500 bat gehiago. Liburuak, aldizkariak eta ikusentzuneakoak maileguan hartzeko aukeraz gain, hemeroteka, Wi-Fi zerbitzua eta kontsultak egiteko hiru ordenadore eskaintzen ditu.